

Mendigachak Azkueri igorri eskutitzak: Aditza

XABIER LARRAÑAGA MUÑOZ *

1. SARRERA

1.1. MENDIGACHA

Mariano Saturnino Mendigacha Ornat Bidankozen sortu zen 1832ko otsailaren 12an, eta bertan zendu 1918ko uztailaren 31n. Gurasoak ere bertakoak zituen. Mariano jaio zen garaian euskara nagusi zen herrian, baina hil zelarik, berriz, bakan batzuek baino ez zuten ezagutzen¹. Beraz, hizkuntz galararen lekuko aparta izan zen. Horrez gain, urte haietan bailarako ia inork ez bezala beste hainbat lekutako euskaldun ezagutzeko aukera izan zuen, Bonaparte eta Azkuek antolatu bilerak zirela medio.

Bonapartek bere hirugarren bidaian, 1866an, Zaraitzutik Erronkarira pasatu eta bertan lan anitzetan laguntzaile izan zituen Mendigacha eta Hualde ezagutu zituen (Ikus bibliografia). Bosgarren bidaian, 1869an, Erronkarira itzuli gogo izan zuen, baina egoera politikoa zela eta Iparraldean geratu nahiago izan zuen, Donibane Lohitzunen, hain zuen ere. Bertara joanarazi zituen Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko hiru informatzaile, eta Erronkaritik Mendigacha abiatu zen, mandoan mendietan barna. Hiru astean lanean jardun ondoren, haranon aditz-sistema osoa eta lexiko asko jaso zuen Printzeak.

33 urte geroago, Azkuek antzeko bilera edo “Akademia” antolatu nahi izan zuen Santa-Grazin, eta bertan ere Erronkariko informatzailea Mendi-

* Euskarra irakaslea.

1. “...Mariano Mendigacha, que al morir se llevó consigo el vascuence de su pueblo natal, Bidangoz o Bidankoze, como sonaba en sus labios.” Azkue, “Particularidades del dialecto roncales”, 210 o. Hala ere, badakigu Mendigacha hil eta urte batzuk geroago artean euskaldunen bat bazela herrian (Erizkizundi Irukoitzarako Bidankozeko datuak 66 urte zituen Juliana Arriolak eman zituen, 1922 eta 1925 artean).

gacha izan zedin entseiatu zen². Prudencio Martin Uztarrozeko apaiza³ eta Orreagako kanonikoaren⁴ bitartez Mendigacha bileraren berri izan eta traba batzuk gora behera agertzeko prest azaldu zen⁵. Azkenean, Santa-Grazin ezin eta Ligin bildu ziren uztail eta abuztuko zenbait astez hainbat herritako euskaldun, hauen artean Mendigacha zela. Azkueren hasierako dudamudak elkarrizketak izan eta datuak bildu ahala desagertu ziren⁶. Eta Mendigacharen ekarria oso bitxi eta interesgarria izan zitzaion Lekeitioko jakitunari⁷.

Orduan hasitako harremana 1902tik 1916ra bitartean elkarrizketa idatzitako eskutitzek indartu eta finkatu zuten⁸. Tarte honetan Mendigacharen kontuak, erretrauak, esakerak, kantuak, ipuinak eta eskutitzak oso balio handiak izan zitzaizkion Azkueri eta beronen lanetan (R) baten aurrean dugun informazioa gehienetan Marianok emana izan da. Azkueren “Particularidades del dialecto roncales” lanaren oinarria ere Bidankozekoarekin izandako hamaika solas eta eskutitzetan bilatu behar dugu.

Hala ere, eskutitzotan ageri denez, bien artekoa ez zen data bilketa hutsa izan eta Erronkariko usadio, ohitura, eguraldi, “uskara”ren bereizitasun eta abarren giblean etsipena, poza, mirespena, espantua, begirunea eta zernahi aitortpen soma daiteke. Adiskide minek baizik aipatzen ez dituzten sentimenduak. Bertan ere gizona heriotzari buruz hurbiltzen, iraungitzen ikus dezakegu, eta berarekin bat betiko mintzoa. Azkeneko eskutitzak gaztelaniaz idatzi zituen.

Hamaika laguntzaile eta jakintsu ezagutu zuen Azkuek baina gutxi errespetatu eta maite izan zuen Bidankozeko laborari xume hau beste⁹.

2. “Mendigatxa Kailesa (Roncalais) akademia orretara eroateko alegiña egingo dot.” (1902-VI-5). Azkuek P.Broussaini bidali eskutitza. Iker-4, 77 o.

3. Ikus Mendigachak Prudenziori igorritako lehenbiziko eskutitza, bertan bilerara joateko nolabaiteko baldintzak agertzen baitizkio. (Irigoyen eta Estornesen edizioetan, 1. eskutitza).

4. “Orreagako adiskideak (obeto esateko ulaideak) eztiñost ezer. Mendigocharentzako bitartea eskatu neutsan.” (1902-V-31). “Atzo artu neban, Orreagako kanonigoaren eskutitzean, Mendigacha-ren baietza.” (1902-VI-16). Azkuek P.Broussaini idatzi eskutitzak. Iker-4, 81 eta 85 o.

5. “...debo decirle que no tengo inconveniente, pero que me hallo entorpecido por causa de mi avanzada edad para andar a pie tan largo y aspero camino. [...] bueno seria que me viera hantes de marchar al punto que se me designa, y dandome algunas explicaciones, conociera yo si le sere util [...]. No quisiera que le sucediera lo que le sucedió al referido príncipe [Bonaparte], que se le presentaban honbres de lejanas tierras y examinados los despachaba el dia inmediato diciendoles que nada podía hacer con ellos.” (Mendigacha, 1. eskutitza)

6. “De la Academia en general no estoy muy contento, pues si un día tengo seis otros no tengo más que mis dos muletas (Mendigacha y Laurentx).” (1902-VII-7). “En cuanto a mis trabajos estoy muy contento, si bien perdiendo de vista su fin.” (1902-VIII-10). “Ederki gabiltza. *Akademia* biziki zoragarria degu.” (1902-VIII-20). Azkuek Broussaini igorri eskutitzak. Iker-4, 88,90 eta 93 o.

7. “Mendigacha y Laurentx se conducen muy bien. Son muy curiosas las palabras que da el primero.” (1902-VII-7). “Mendigacha y la salacena admirables” (1902-VIII-10). Azkuek P.Broussaini igorri eskutitzak. Iker-4,88 eta 90 o. “...cuando oía de V. aguna cosa rara (y bien de ellas oía) decía yo a cada paso: au olandesa da.” (1903-VI-4). Azkuek Mendigachari bidali 3. eskutitza.

8. “Desde que le conocí empecé a tenerle afecto como de hijo; y este afecto no disminuye ni se entibia a pesar de la distancia, tiempo y ausencia”. (1915-X-16). Azkuek Mendigachari igorri 20. eskutitza.

9. “Mendigacha, habiendo recibido de mi la fausta noticia de su casamiento, me dice: [...]. Es la bendición de un Patriarca. Recíbala V. con sombrero en mano.” (1904 -V-28). Azkuek P. Broussaini eskutitza. Iker- 4,127 o. “...quiero invocar la memoria de mi patriarcal amigo y excelente colaborador Mariano Mendigacha...” Azkue, “Particularidades...”, 210 o.

1.2. ESKUTITZAK

Arestian erran bezala, Azkueren hainbat lanek Mendigacharen itzala erakusten digu. Horrela, Marianoren erranerak, errefrauak, kantikak, ipuinak, alde batetik, eta Erronkariko hizkera bereziaren ezaugarriak, bestetik, haren *Diccionario Vasco-Español-Francés*, *Morfología Vasca*, *Euskalerrriaren Yakintza*, *Cancionero Popular Vasco* liburuetan eta, batez ere, *Particularidades del dialecto roncales* lanean agertzen zaizkigu, batzuetan (R) baten ondoan, bestetan Mendigacharen izena edo herria ondoan dutela.

Mendigachak Azkueri idatzi eskutitzok, ordea, ez ditugu harik eta 1957an Irigoyenek zeuden gisa argitaratu zituen artio ezagutu. 1961ean Faustino de Zerio y Segurak Lekeitiokoak Bidankozekoari idatzitakoak bildu eta publikatu zituen, guziak oharrez jantziak. Azkenik, 1984. urtean José Estornesek Mendigacharenak plazaratu zituen berriro, berak zuzendu eta gaztelanieratuak. (Ikus bibliografia).

Zenbait eskutitz galdu dira eta horrela Azkuek idatzi zizkionetarik 11 eskutitz eta 9 postal baizik ez dugu, 20 osotara; lehendabizikoa 1902ko irailaren 22an eta azkena 1915eko urriaren 16an idatziak dira eta horietarik bi euskaraz (1. eta 10.a)¹⁰, gipuzkeraz eta erronkarietaz, hain zuzen ere. Mendigachak Azkueri igorrietarik 34 baino ez dugu, lehendabizikoa (lehenago ere idatzi ziola dakigun arren) 1903ko martxoaren 15koa eta azkena 1916ko abuztuaren 30koa¹¹ eta euskara 24tan da nagusi¹², nahiz besteetan ere azaldu. Eskutitzen maiztasunari dagokionez, badirudi hasierako agindua ezin izan zuela bete¹³, 1902tik 1905era bitarteko 26 eskutitz baititugu eta hurrengo hamaika urtean 8 baino ez. 1905. urte hori hizkuntz aldaketaren data ere bada: harrezgero beti gaztelaniaz idatzi zion, euskara ipuin, otoiak eta esaldi solteetarako utzita.

1.3. LANA

Lan honen xedea Mendigachak darabilzkien adizkien ezagutza eta sailkapena izan da. Horretarako eskutitzotan ditugun adizki guziak dauden gisan atera eta adibide banarekin lagundu ditut. Funtsean Mendigacharen hizkeraren adizkia ezagutu nahi izan dut eta ez erronkarietara edo Bidankozeko hizkerari buruzko lan sakonik egin; horregatik ez da euskalki horretako beste testuetan ditugun adizkiekin konparaziorik egin edota beste nolabaiteko argitasun eta azalpenik eman. Beraz, adizkia jaso, adibidearen bidez ezagutarazi, batuerazko ordaina ezarri eta adizki hori eskutitzotan non agertzen zaigun adieraztea izan da nire asmoa, besterik ez.

Aditzari dagokionez, Mendigacha Azkueri berorika mintzo zaiola erran

10. "Mi buen amigo Mendigacha: Me da pena no escribir a V., como le hablaba, en nuestra lengua; pero, porque V. lo quiere, sin duda para mayor facilidad, le escribo en castellano" (1903-II-17). Azkuek Mendigachari idatzi 2. eskutitza.

11. "Con respecto de mi vida... no sé si me equibocare ami se me figura que la presente sera la ultima que reciba V. de mis manos;"

12. "Gozo mucho leyendo sus cartas. Escríbame como hasta ahora en puro roncalés" (1903-II-17). Azkuek Mendigachari idatzi 2. eskutitza.

13. "Pensamentiuan artruk dakad biardaudala eskribitu aldokedan tenpra guciuz, ilabeteoro". (1903-III-15). Mendigacharen 2. eskutitza. "...le agradezco su resolución de escribirme por lo menos una vez al mes" (1903-VI-4). Azkueren 3. eskutitza.

behar da, duketza¹⁴, eta hori dela eta hirugarren pertsonako adizkiak nagusi ditugu.

Lana egiteko Irigoyenen 1957ko argitalpena izan dut oinarri eta eskutitzen numerazioan ere beraren sistemari jarraitu diot, hau da, 26 eta 27. esku-titzak Irigoyenek bezala bakartzat hartu ditut, 26.tzat, hain zuzen.

2. ADIZKIAK

I. ADITZ SINTETIKOAK

I. 1. ADITZ IRAGANGAITZAK

1. IBILI

dabil

.-dabila: “...se dice: azcondatan DABILA nor izanden ebaslia.” (26)

gabiltza

.-gabiltza: “Oray GABILTZA azian, tenpra eta zazoina digu anich on eriteko;” (19)

dabiltza

.-dabiltza: “; oray DABILTZA nausiak zunr eramanen biltan,...” (16)

2. EGON

nago

.-nago: “; ni ere akaitruk NAGO ñore lanetaz;” (6)

.-nagola: “; badu amaborz egun NAGOLA begi min gassto bateki,...” (19)

.-bainago: “Eskribi beztað cerbait, BAINAGO airian ssakiteko ortaz.” (20)

hago

.-yago: “Estas ancho [...] zabal YAGO” (23)

.-yagola: “...yik izaguntanyuanian lassosko YAGOLA ostikaldibatez ezcapayaiteke;” (31)

dago

.-dago: “..., DAGO elurrari ezin obroz; miseria andia DAGO ardidunetan,...” (25)

.-dagó: “Ene baitan DAGó orren azken ilabetiaren 25co. carta,...” (6)

.-dágo: “Jangeikoak libradazaula Maria, DáGO graziaz veterik,...” (29)

.-badago: “BADAGO ele franco erraitenbaidra letra ververetaz vi eta irur gisatako.” (12)

.-dagon (z.g): “Anissko ganureki nago ssakin naiz, ya ori sontotudenez edo nola DAGON.” (7)

14. “...; duketza mintzatagra zarrerr, eta errespetozko gente guziareke”. Mendigacharen 23. esku-titza.

.-dagon (e.):	“Gorian DAGON tenpran, alaba eta ni alkar mintzaten-gra uskaraz;” (9)
.-dagona:	“..., eztingu negu guciuan ecusi, cainbat elur nola orai DAGONA;” (3)
.-dagonaren:	“; valle contan, dago beso chiki, trafiko DAGONAREN, zunr trabajatako;” (14)
.-dagonaz:	“; usin DAGONAZ ezdokegu lessoetarik karrikara kukurik egin,...” (13)
.-dagonez:	“...sakiteko cerbait orren familiatik, bizidrenez guciuak, bizkorrago DAGONEZ... (20)
.-dagola:	“...ankue DAGOLA bagadoi anich, zunr eguiteko dago chiki;” (10)
.-baidagó:	“..., ezdabeila falliten D. Resurreccioni, emonik BAIDAGÓ lanari,...” (24)
.-ezdago:	“; orai EZDAGO penarik, ssuntatandra borontate dionak,...” (13)
.-eztago:	“; baya EZTAGO gizonik, dago administracione gastobat,...” (14)
.-eztagola:	“; errana badigu kemen, EZTAGOLA betik urrucha, makila eguiteko;” (3)
.-ezaldago:	“EZALDAGO Nefarro guciuan, iri kain lazorik nola caur, ikasguiuaren gainian;” (3)
.-diok (H):	“D. Resurreccion aserik DIOK yire uskaraz, yire kar-tez,...” (24)
.-dion (H):	“Ahí esta [...] kór DION.” (23)
.-diozu (Z):	“Ahí esta [...] kór DIOZU.” (23)
gaude	
.-gaude:	“Orai gizon guzioak GAUDE neguko argi, eta egurren sartan;” (9)
.-gaudena:	“Negu minianGAUDENAgisa digu tenpra re;” (13)
.-gaudela:	“..., urduzaitad GAUDELA biak ssunto Escapilenian beirtartez- beirtarte.” (2)
zaude	
.-zaude:	“Estas ancho [...] zabal ZAUDE.” (23)
daude	
.-daude:	“; eta berze irurak DAUDE chochatiar ellotruk ssain ssaina.” (2)
.-daudé:	“;garagarrak, zoritruk DAUDÉ,...” (16)
.-badaude:	“...komunkisse erortendra ssunto, zomait BADAUDE an-cartruk edo enussatruk,...” (13)
.-dauden (z.g):	“...arrebak, Sol, Aurora, y Diana, ya bordaltudrenez ala neskato DAUDEN.” (20)
.-dauden (e):	“..., anasse ilik DAUDEN arima gucientako elizan eguitendra funcione...” (8)
.-daudela:	“...ekustendud zomait gaski isaririk DAUDELA.” (14)
nengoen	
.-nengolarik:	“; oray bi urte orreki NENGOLARIK Ligin,...” (15)
zegon	
.-zegon:	“..., ZEGON vallia, ogeita bor milla dororen zorrian,...” (14)

- .-cegon: “; gaztia CEGON enbarazatruk andi.”(6)
 .-zegonareki: “; leinekueki eta reitoetra zor ZEGONAREKI,...”(14)
 .-zegola: “; leineko zarer entzutiaz digu, gaiza caur, isaririk ZEGOLA,...” (13)

geunden

- .-ginaundetarik: “eta verze gein GINAUNDETARIK liburu bat oiltu bai-zaun kari re bai.” (12)

zeuden

- .-zauden: “; betik emonZAUDEN ankarren, zarrak gazteki;” (7)
 .-zauden (e): “; faiten emonzren zarrak, gaztiak ZAUDEN etseko bortara,...” (7)
 .-zaudenen: “..., gaiza caur, isaririk zegola, ankartruk ZAUDENEN bakian isartako;” (13)
 .-zaudelarik: “Kontan ZAUDELARIK, asizitzavein espalda atz eguiten...” (31)

3. IAUGIN

daugi

- .-daigun (e.): “DAIGUN ilabeteko cartan oiltendaud edo erranendaud zerbait...” (22)

4. JOAN

noa

- .-banua: “; BANUA indarak biltuz erdisalki.” (4)
 .-nuana: “; guartuz NUANA gisa, fanenaz gidatuz.” (24)

hoa

- .-yoa: “..., eta erranzaun kikosoak: ¿nora YOA?” (31)
 .-yua: “; eta yi ¿nora YUA? Kikosok: ni uzkiuara.” (31)

doa

- .-duala: “Nola urdubaizaitad tenpra abañatuzDUALA, eznaiteke consaba ssakinnaiz,...” (26)

doaz

- .-duatzana: “..., baya essartuz DUATZANA gisa faitendra sortuz.” (10)

zihoan

- .-zuan¹⁵: “; geroztik, ZUAN erranez nabaja erkilia, ezokela lissiri tripa mina,” (6)

zihoazen

- .-zuatzen: “Asuri saldo batarik ZUATZAN vi arzatz ezkapatruk ardietra,...” (35)

I.2. ADITZ IRAGANKORRAK

1. EDUKI

daukat

- .-dakad: “: antzinian DAKAD carta errana;” (15)

15. Hala ere, Azkuek: “De flexiones remotas de este verbo sólo he podido recoger la plural de tercera persona: [...] ZUATZAN.” (Azkue,243 o.)

- .-dakadan (z.g): “..., ez baitakid cer DAKADAN erranik; (11)
 .-dakadan (e): “Orren erranik DAKADAN cartan ekustedud diola intencione ssiteko...” (18)
 .-ezdakad: “EZDAKAD antzerik ele lista oiltu zaitadana gora erranik dakadan cartan” (19)
- dauzkat**
 .-baidazkad: “...sseyak, igarditzan kain alegre, nola nik gogoan BAI-DAZKAD,” (11)
- daukakiot***
 .-dakaud: “Kalako gisatan DAKAUD pensamentuan,...” (26)
 .-dakaudanaz: “; badaki oraiz lein erranik DAKAUDANAZ, ezdú baizik escribitia...” (25)
- daukak**
 .-dakayana: “lo que tienes [...] DAKAYANA [mas.]” (23)
- daukan**
 .-dakayana: “lo que tienes [...] DAKAYANA [mas.] orobat [fem.]” (23)
- dauka**
 .-dakan (z.g): “lepoko gorbatak berark eratsukitandu nola DAKAN ut-sik gizenkiaren lekiua.” (18)
 .-dakana: “lo que tienes [...] DAKANA” (23)
 .-dakala: “..., nola ene Ama cenak (Jangeikoak bere ceurian DAKALA)...” (7)
- daukagu**
 .-dakagu: “; egun, familia guziuak DAKAGU eskiu artetan egun guziuan;” (17)
 .-dakagú: “...oray ere, erreparatruk DAKAGÚ, komunkisse erortendra ssunto,...” (13)
- daukazu**
 .-dakazuna: “lo que tienes [...] DAKAZUNA” (23)
- daukate**
 .-dakei: “; zerengatik izanden beren artian DAKEI issilik.” (20)
- nauka**
 .-naká: “Orren valle contra ssitiaren boztarioak NAKá airian.” (26)
- naukate**
 .-nakei: “; orainore etsekuek peonik obenena NAKEI, egitatako.” (7)
- gauzka**
 .-gazka: “; gizon guciuak GAZKA sukunetan, akokiñatruk, zankabizkarrak errerik;” (11)
 .-gazkala: “; badu ogei egun elurte andibatek pean GAZKALA;” (11)
- neuzkan**
 .-nazkala: “Bacion aspaldisso bi pensamentu NAZKALA buriuan sartruk,...” (24)
- zeukan**
 .-zakan: “Erranduan gobernuko korrek, Aragokoan, ZAKAN erosi-rik berze lerdoi bat,...” (14)

2. ERAMAN

daramat

.-damadanagatik: “Erranik DAMADANAGATIK, ezdaud isartan oboro.” (20)

.-damadanareki: “..., zer izanen den ote nitaz, adin DAMADANAREKI;” (2)

darama

.-daman (z.g): “, betik nago ssakinnaiz sontotu cenez ote; eta zertan DAMAN verorren lan andia.”(8)

.-damana: “; artaz ekustendud, lan, DAMANA;” (15)

.-damanareki: “, lan DAMANAREKI aborritruk eskerr bage bateki, mai peara egosstendaizk...”(24)

.-damanian: “; artaz ekustan dud aintzinatan diona uskarazko lan andi DAMANIAN.” (2)

daramatzagu

.-badamatzagu: “BADAMATZAGU iror urte gassto, ssunto;” (15)

zeramaten

.-zameinz: “..., eta guero fancren veren vide ZAMEINZ.” (35)

3. JAKIN

dakit

.-dakidan (e): “; ene ustez isartadaud DAKIDAN obekienaz;” (12)

.-baitakid: “BAITAKID orren egeto principala cerengatik den...,” (11)

.-ezdakid: “; EZDAKID ala eznon ikasi, ala antze zren;” (24)

.-eztakid: “EZTAKID gaski ala onki eskibitandaudan;” (2)

.-ezdakidala: “ Casilletan ssuri erdeitendiona señale EZDAKIDALA.” (24)

.-ezbaidakid: “; EZBAIDAKID nonden orren barapena,...” (19)

.-ezbaitakid: “..., EZBAITAKID cer dakadan erranik;” (11)

.-badakian (H.): “..., anich ekustendian, eta BADAKIAN anich zer igartanden;” (31)

dakizkit

.-dazkidan (e): “Casilletan isartandazkad erdaraz eta uskaraz, DAZKIDAN gisa.” (24)

dakik

.-badakik: “...BADAKIK onzaunaz yire uskara, D. Resurreccion azduk sékula asperten...” (24)

daki

.-daki: “; egun, eskerrak niri, DAKI bere oficioa, ñork bino obeki.” (21)

.-badaki: “; BADAKI betik baratan nazala ganureki;” (22)

.-badakiola: “; organistak erranzaun, artzain edo labrari izaiteko, BADAKIOLA aski;” (3)

.-ezdaki: “; egunko egunian EZDAKI, edo eztakid, non dagon orren barapena;” (20)

.-eztakiola: “..., badakigu ñorkere EZTAKIOLA obeki ezik,bapana berark,...” (9)

dakigu

.-badakigu: “...,BADAKIGU ñorkere eztakiola obeki, ezik,bapana berark,...” (9)

- dakite**
 .-ezbaidakiei: “ ezdaiteque ssin emaztekirik serbuchatra, EZBAIDAKIEI mendiko lanetarik.” (14)
- zekiten**
 .-baizakein: “; nola zarrek BAIZAKEIN obro ezik gaztek...” (7)
- baneki**
 .-banaki: “..., artikulo, eskribituaonak uskaraz, BANAKI zoin gaze-tatan dauden...” (15)

I.3. AGINTERAK

- har ezak**
 .-arrak: “..., yaur yaz nausi, ARRAK naiyoana...” (26)
- eman biezat**
 .-vída: “dame VÍDA” (23)
- idazu**
 .-edeizu: “dame [...] EDEIZU” (23)
- idak**
 .-edeik: “dame [...] EDEIK” (23)
- idan**
 .-edein: “dame [...] EDEIN” (23)
- ordek**
 .-ordek “Kikosoak: a tonto ORDEK polpara onki ortzak kalka-
 dozkian lekiura.” (31)
- orden**
 .-orden: “Vada naibadan fon uzkiuara, ORDEN gaztiarniara;”
 (31)

II. ADITZ LAGUNTZAILEAK

II.1.NOR

- naiz**
 .-naz: “Fan NAZ plaztara iror gisatako sagar saltra, on, erdiskal eta gassto;” (26)
- .-naza: “Eztaud isartan obro, ezik betik baratanNAZA guisa be-
 rian...” (3)
- .-nazan (e): “; biziNAZAN tenpran onki bissi costatruk izanen da.”
 (17)
- .-nazala: “; badaki betik baratan NAZALA ganureki;” (22)
- .-nazalarik: “Ortaz quartanNAZALARIK, naro eskatannaz gore Jeina-
 ri” (15)
- .-bainaz: “; ssinen da berze tenpra bat izanen BAINAZ luciago;” (7)
- .-eznaz: “..., eztud letra bat ere, EZNAZ guar zer eskribitunaun;”
 (15)
- .-eznazala: “; biardaud erra, EZNAZALA adesskide contubaten bial-
 diz contatako;” (11)
- .-enazala: “..., erraitendaud, ENAZALA trebe llober uskeraren ika-
 saraztra...” (3)

haiz

- .-yaz: “; erranaun azkenaren buriuan, yaur YAZ nausi, arrak naiyoana,...” (26)
- .-yáz: “eres forzudo [...] indartsu YáZ.” (23)
- .-yaza: “...has benido ya, se dice sinYAZA ssa.” (26)
- .-yazanian: “...ayan ezkapatan YAZANIAN, ezyay ekusen lasterrari emoiten.” (31)
- .-ezbayaz: “too chiflete bat emonayakue EZBAYAZ issiltan.” (11)
- da**
- .-da: “Assolabage, DA, morroin gasski azi bat. Aizenbage, DA, gizon abratsa.” (6)
- .-dá: “..., Jeina Dá ortan, ori Dá venedikatiua emazte guciuen artian,...” (29)
- .-bada: “; ssiten BADA Zaitzutik, dagó Gorzaraino; eta ssiten BADA gore valletik,...” (9)
- .-barimada: “zomait itz sitenbada edo sitenBARIMADA isarendud antzineko itzetan bikala.” (9)
- .-den (z.g): “...pensatian kementik irur urteren buruco, zer izanen DEN ote nitaz,...” (2)
- .-den (e): “errekesunetik barataDEN zukiuari, erraitendabei, chirikot;” (13)
- .-dena: “carta contan oiltandaud kontu bat, eta dá ssarrekitan DENA.” (26)
- .-denak: “...biziDENAK, aurtenko negiuaz ekunendu kontu franko.” (13)
- .-denarí: “Eztago erremediorik, biardigu orkitú ssitenDENARÍ;” (2)
- .-denaz: “Yaqueta naibaitu cartetako papera aprobechatzadan ene uskaraz, DENAZ den”(11)
- .-denetarik: “Arbole apaletarik obroen aztanDENETARIKdra, ezpela, illuria, corostia...” (10)
- .-denez: “Anisako ganureki nago ssakin naiz, ya ori sontotuDENEZ edo nola dagon.” (7)
- .-denian: “...viarra DENIAN otoyak on.” (26)
- .-dela: “Anke erraiten daitadala daigun udan ssinenDELA cona...” (9)
- .-delá: “...ekustendud ssitenDELÁ acabalozko bat, mando andi batían,...” (5)
- .-delarik: “..., baya bustitik guardatanDELARIK, izaintandu, lerrezko coralak bikainbat;” (10)
- .-baita: “...nola kainbat aztan BAITA, andituzgeroz egitendra zunrtan;” (10)
- .-ezta: “; korrengatik EZTA izagun fiestetako disposicionian.” (16)
- .-ezbada: “..., eztaud issartan obro, koneki, adios EZBADA oborogoko nobedaderik.” (4)
- .-ezdela: “; badu bizpor egun EZDELA issiltan odei marraka.” (16)
- .-eztela: “..., ur pean edo leku bustibatian, erranaiznago EZTELA tustatan sekulare.” (10)

- .-duk (H.): “Sn. Lucas DUK Abenido San Lucas” (26)
 .-dúk (H.): “es chaparro [...] chaparDúK” (23)
 .-azduk [sic] (H.): “D. Resurreccion AZDUK sékula asperten yire uskaraz, yire kartez,...” (24)
 .-eztuk (H.): “..., nola orrastatanbaita naroago, EZTUK yire vizia izanen kain luze;” (31)
 .-dun (H.): “mejor es [...] obe DUN” (23)
 .-dún (H.): “es chaparro [...] chapar Dún” (23)
 .-tzu (Z.): “mejor es [...] obe TZU” (23)
 .-tzú (Z.): “es chaparro [...] chaparrTZú” (23)
- gara**
- .-gra: “EltuGRA osagarriregi Sn. Pedro gore patronaren eguniarat.” (16)
 .-grá: “...eta gero guciuak asenGRá zunreko lanetan negu guzuko.” (9)
 .-gren (z. g): “; bigarnian nola mintzatanGREN duketzian”; (23)
 .-grena: “...eta lein eltanGRENA yiri tokatra, eitzengutuk libre”. (35)
 .-grela: “; eztud dudarik erreparatudiola itz batez mintzatanGRELA bi gisatako elen,...” (11)
 .-ezgra: “; EZGRA gachiten noranai fandein,...” (9)
 .-ezbagra: “EZBAGRA eltan ssuntatra, berantago oilten dazkad al dokedan obekienaz.” (18)
 .-gutuk (H.): “; atziritenGUTUK amabi urratsez kantik, arrancaten GUTUK veinkoan,...” (35)
- zara**
- .-zrá: “eres forzado [...] indartsu ZRá” (23)
- dira**
- .-dra: “..., ssuntatanDRA borontate dionak, baya orainore ssuntataDRA obroak;” (13)
 .-drá: “..., eta vizpor abratsentako solo DRá valleko ontarzun guciuak.” (14)
 .-dren (z. g): “... orrek erranbeztad zomait carta oiltandadanetan, ya non erdeitenDREN.” (15)
 .-dren (e): “... arbole kuek sortanDREN errian, apoderatandra berze arbole guciuetaz.” (10)
 .-drenak: “Chikidra, egun igartanDRENAK, ortaz quartu bage, ...” (18)
 .-drenez: “Anissko ganu dud ssakiteko cerbait orren familiatik, biziDRENEZ guciuak,” (20)
 .-drenian: “...3.^a, nola erraitenzabein embrer gora isantanDRENIAN,...” (24)
 .-drela: “...eztud beinenere entzun arecha eta artakarroa essartuDRELA bere caboz.” (10)
 .-baidra: “...cherrietaz gizentengra, orobat nola urak gize tubaiDRA gutaz, ...” (11)
 .-ezdra: “viar ekuntubaizein ezkapatu bapana alcion lekutik, eta EZDRA obrorik ekisi.” (31)

nintzen

- .-nintzen: “FanNINTZEN baratruk ekustenion ervi baten arrapatra, ...” (5)
 .-nintzen (e): “... menditik sinNINTZEN tenpra berian, eltuzitzaitadan orren erretratoa;” (17)

zen

- .-zen: “;ssachiZEN iburnietra; irurgarnen egunian viztuZEN ilen artetik;” (29)
 .-cen: “...ssaz eltuCEN zorra berrogei eta bedratzu milla durotra.” (14)
 .-zen (z. g): “; berzainez, eztakid cer izanenZEN kan;” (6)
 .-zen (e): “...; erreketarik ssuntatuZEN urbultziuak, eramantzion;” (16)
 .-cen (e): “; zegon vallia, ogeita bor milla dororen zorrian, carretera eginCEN tenpratik;” (14)
 .-cenak: “Oraigunian quartu nintzen, nola ene Ama CENAK...” (7)
 .-cenez: “...; betik nago ssakinnaiz sontotu CENEZ ote;” (8)
 .-cenian: “...; errannaun, merchedez, eskribilaztadala mutatanCENIAN leku batarik...” (20)
 .-zela: “...; erreiten zaitadan, ilabete baten burian ssinenZELA Españara...” (19)
 .-baizen: “Nola mayatza fan BAIZEN on, kosecha ssitzenaikugu gosstarssago;” (16)
 .-ezen: “; EZEN beztitu zipoterorik ere.” (14)
 .-ezbaizen: “Ezkerrak enondozke, Jangeikoari, EZBAIZEN izan andiago.” (7)
 .-ziua (H.): “éra flojo [...] lázo ZIUA” (23)
 .-ziua (H.): “éra flojo [...] ZIUA (m.) (f. id.)” (23)
 .-zunion (Z.): “éra flojo [...] lázo ZUNION” (23)

ziren

- .-zren: “;leku egongiurengatik, ankartuZREN bi emazte;” (6)
 .-cren: “... eta guero fanCREN veren vide zameinz.” (35)
 .-zren (z. g): “; ezdakid ala ez nion ikasi, ala antze ZREN;” (24)
 .-zren (e): “Emonbetza ene goratziak Ligin egonZREN irur apezzer...” (12)
 .-zrenek: “; ezitein ekisi solo artzain eltuZRENEK muga kartra.” (14)
 .-zrenetik: “... sartu emonzitzabein lotsa, ezbaizren erkiten etse, biltanZRENETIK;” (7)
 .-zrela: “;erran emonzein aurten ssinenZRELA valle contra;” (14)
 .-ezren: “;EZREN irietra batrere arrimatu, beren erritik ssinZREN lerdoyara,...” (14)
 .-ezbaizren: “...sartu emonzitzabein lotsa, EZBAIZREN erkiten etse, biltanzrenetik;” (7)

balira

- .-balidra: “, iragoak egitenztein, carrikan egonBALIDRAgisa;” (6)

nadin

- .-nein: “; correatatik, egun Bazko eguna aprobekhatadud baranein sosegatruk:...” (15)

dadin	
.-dein:	“; baitare zomait gaiza izanbage, solamente ta, veaDEIN, entzutzan,...” (11)
.-dain:	“...eztud esprantza andirik elDAIN carta kaur orren eskiuetra.” (19)
.-deila:	“; aren eskutik ssindeinver, izan DEILA comenidena.” (2)
gaitezen	
.-gitian:	“..., eta ssuntaGITIAN biak zomait egunen, den lekiuan dela.” (18)
.-guitian:	“...conserbazak gutaz asetako ganiua, veriz elGUITIANar-tio salutatra.” (35)
daitezen	
.-tian:	“...anque ezdutuala izaguntan naidud ssarrekiTIAN onki.” (2)
ledin	
.-ledin:	“Egin ala egindud D. Arturo erkinLEDIN diputao; baya ezaitad baliatu;” (13)
bagintez	
.-baginte:	“..., obeki emonennaun entelegatra itzez edo elez, elBAGINTE suntatra biak;” (18)
naiteke	
.-eznaiteke:	“..., EZNAITEKE consaba ssakinnaiz, eskribitubage, noiz izanenden...” (26)
.-ezbainaiteke:	“; ezdoked eskribi EZBAINAITEKE ssaseririk egon.” (17)
haiteke	
.-yaiteke:	“; eta yik izaguntanyuanian lassosko yagola ostikaldibatez ezcapaYAITEKE;” (31)
daiteke	
.-ezdaiteque:	“; balle contra EZDAITEQUE ssin emaztekirik serbuchatra,...” (14)
gaitezke	
.-ezgaizteke:	“; eta EZGAIZTEKE asper berari beira egitiaz;” (17)
nintekeen	
.-eznaiteken:	“...vay, ekunbanuntu azpiak yirienguisa, vaya ni EZNAITEKEN brinka;” (31)
zitekeen	
.-zaiteken:	“EgonZAITEKEN bai valle kaur aski abrats;” (14)
.-ezbaizaiteken:	“; gesalbateki kariketan, EZBAIZAITEKEN cristiaink erkin;” (14)
hadi	
.-adi:	“..., eta erranzabein Otsoari: yi egonADI kemen ikurik;” (35)
.-adí:	“Kikosoak: vada gunian fanADí zarrarniara,...” (31)
bedi	
.-bedi:	“; beinaz bein, ssinBEDI baratra gorian;” (9)
zaitez	
.-zte:	“bája [...] jáchZTE” (23)
.-zté:	“márcha [...] fanZTé” (23)

zaitetze

.-ztei: “..., erranzabein: issilZTEI, tratazazei vien artian zoin biartzein izan.” (35)

II.2. NOR-NORI

zait

.-zaitad: “EltuZAITAD orren targeta, azken ilabetiaren 22n. eskribitua;” (13)

.-baizaitad: “Nola urduBAIZAITAD tenpra abañatuzduala, eznaiteke consaba...” (26)

.-ezaitad: “; EZAITAD antzeren erraitia, zer probechu emoitendeion, orobat Lerrak,...” (7)

.-ezbaizaitad: “; ezaitad deusere EZBAIZAITAD deuririk costa.” (6)

.-ezaitadan (H.): “...EZAITADAN kain gaski urdutan yire urdukala;” (31)

zaizkit

.-zaiztad: “Correngatik costatanZAIZTAD orren cartak.” (9)

zain

.-zain: “..., ekustiagatik cérdion eriartetan, fanenZAIN lassatuz emaroa emaroa;” (31)

zaio

.-zau: “...eta asiZAU solfaren eratsukitan bigarnen alteko lein elizionetarik.” (9)

.-zio: “, a V. que le inporta; a esta contestación se dice, Orrio zerZIO y Orri zerZAU.” (5)

.-zaun (z.g): “..., sekularo eguna, ezdakid izen kaur zertarik siten-ZAUN”(22)

.-zaunaz: “etzayala ssinets korri, badakik onZAUNAZ yire uskara,...” (24)

.-zaunez: “...erranendaud zerbait gore uskararen gainia, ya zerbait bolioZAUNEZ;” (22)

.-zaunian: “...antzinatan dion gisan, kainbat costatanZAUNIAN;” (6)

.-zaula: “Ezdud uste gachinZAULA gaiza kuen oiltra, bada guciua egitendud obeki naiz.” (24)

.-baizau: “Yaketa kain on BAIZAU gore uskara, nik ere ala eginnazake sarlakion...” (9)

.-ezau: “..., karek eztu erran járik, kari EZAU mintzorik entzun,...” (6)

.-ezaula: “..., nago EZAULA gachiten gaiza kuek oildazkaudan;” (23)

zaizkio

.-zazka: “; obroena barragarritako izanenZAZKA ene astakeriak.” (2)

.-bazazkau: “...ssinendela cona gaizak onki erkitenBAZAZKAU ilabete batentako,...” (9)

.-zazkan (z.g): “...ñorkere eztakiola obeki, ezik,bapana berark, gaizak nola comeni ZAZKAN.” (9)

.-ezbazazka: “EZBAZAZKA erkiten onki gaizak, edo ezbagra eltan ssuntatra,...” (18)

- zaigu**
 .-zaikugu: “Engossan antze ZAIKUGU llarne mantria sotoaren erdian;” (11)
 .-baizaikugu: “; nola sinBAIZAIKUGU uste bino lein,…” (11)
 .-zaiku: “Orai ssinZAIKU maistro berri bat,…” (9)
 .-zaikula: “; eztigu espratzarik sineZAIKULA maistorik negu guciuan;” (13)
- zaizkigu**
 .-zaizkugu: “; eta aurten negu gassto egindionaz galtoZAIZKUGU;” (15)
- zaie**
 .-zabei: “...ekutendein frutiuari, erraitenZABEI bagoarnari, magalla, arecharnari, zin,” (10)
 .-zabein (z.g): “...ekustendud, nola orren etsekuer urduZABEIN erretratoan zartruk dagola;” (18)
- zaizkie**
 .-zazkabei: “...ezbadei nastekatan berze zomait autseki, eskuiak lardekitanZAZKABEI,…” (10)
- zitzaidan**
 .-zitzaitan: “..., agun karta eskribitunaunaren biramenian, eltuZITZAITADAN orrena,” (18)
 .-baizitzaitan: “..., nola azken cartan papera beteBAIZITZAITADAN, eznaun obro isari;” (11)
- zitzaion**
 .-zitzauna: “Merchede eskatuZITZAUNA eguin balau y eguinbalio ezren enussaten...” (5)
- zitzaizkion**
 .-zitzaizkan: “Otsoari, ezkapatuZITZAZKAN tripak gultzurineta-rik,…” (35)
 .-citzaizcaun: “..., aubazterretarik erortenCITZAZCAUN,…” (11)
- zitzaigun**
 .-zitzaigugun: “Konen bigarnian eroriZITZAIKUGUN arri erauntsi andi bat;” (18)
 .-zitzaigugula: “Badú borz ilabete fanZITZAIKUGULA maistroa, arrenta andiagoz,…” (3)
 .-zitzaigun: “; egun contan ssinZITZAIKUN elurra abanchu iriaraino;” (8)
- zitzaien**
 .-zitzaibein: “...kalako gisan sartu emonZITZABEIN lotsa, ezbaizren erkiten...” (7)
 .-zitzaivein: “Kontan zaudelarik, asiZITZAVEIN espalda atz eguiten...” (31)
- balekio**
 .-balakio: “..., si se le diera lo que aquel le mandó, ya lo daría, se dice: emonBALAKIO...” (5)
- dakion**
 .-eztakiola: “Oraissa eztaud isartan obro, naybeda EZTAKIOLA balio bakochare;” (6)

.-dazakion:	“; badakik ere, oboroago lan ssuntaDAZAKION, ezdabei-la falliten...” (24)
zekizkion	
.-zizkiola:	“..., eta gaizak ere erkinZIZKIOLA gisa berian.” (14)
lekion	
.-lakion:	“..., nik ere ala eginnazake sarLAKION buruko unetraino.” (9)
hakit	
.-akida:	“..., guenAKIDA ene antzinetich seculako; correqui oiltucion.” (11)
bekigu	
.-dakigu:	“..., santifikadeila orren izena, ssinDAKIGU orren reinoa,...” (29)

II.3. NOR-NORK

dut

.-dud:	“Nik entzutiaz DUD, izeyak eta lerrak, irurein urteren bicia deila;” (10)
.-badud:	“Luis Luciano Bonapartedanik BADUD bi erretrato onki guardatruk,...” (15)
.-duan (z.g):	“..., ezdu sintsen zer deseo DUAN ssakiteko noizartio dagon erri kortan;” (25)
.-duan (e):	“Yzen eskatandaitanetarik erranDUAN cartan, chikiz guarnaz;” (24)
.-duana:	“; oraigunian ilzitzaitadan fiore mentian adesskiderik andien ekunDUANA,...” (8)
.-duanareki:	“Nik osagarriDUANAREKI, gore Jainaren graciareki batian,...” (18)
.-duanaz:	“Nik osagarrireki laguntendaud alDUANAZ biarnion tenpra guciuan;” (9)
.-duala:	“; eltanbada egun kori (anke ezduala esprantza andirik ekusenDUALA)...” (25)
.-dualarik:	“...eznaz ssinen etsera, solo igantetan eta sseyetan, (osagarrri DUALARIK),...” (15)
.-baidud:	“cherria ilbiardud ssanaria acabatuBAIDUD,...” (26)
.-baitud:	“Nola azken kartan, eta contan direcionia verze gisatra isartanBAITUD,...” (14)
.-ezdud:	“..., EZDUD nai lan aurerrik egin.” (20)
.-eztud:	“; baya correatatik EZTUD assolik batrere,...” (9)
.-ezduala:	“; eltanbada egun kori (anke EZDUALA esprantza andirik ekusenduala)...” (25)
.-ezbaitud:	“Nola EZBAITUD ekun orren cartarik, min artucionazgero, betik nago ssakinnaz” (8)
.-diak (H.):	“he sentido [...] sendituDIAK” (23)
.-dian (H.):	“; lasterra DIAN llabur eta chiker; korreatatik biarDIAN cherkatu leku nón...” (31)
.-diezt (Z.):	“he sentido [...] sendituDIEZI” (23)

ditut

- .-tud: “...eztud leitako tenprarik,sseyak eta Ygantiak, kurak igar-tanTUD oso-osea,” (15)
 .-tuala: “; urduzaitad bazterr guciuak tokatuTUALA.” (26)
 .-ezdutuala: “...anque EZDUTUALA izaguntan naidud ssarrekitian onki.” (2)

duk

- .-duk: “...yik biarDUK etseko izan, eta biarDUK calacoareki bordaltu;” (11)
 .-baduk: “IkasibiarBADUK [...] si has de aprender.” (26)
 .-yoana: “...yaur yaz nausi arrak naiYOANA,...” (26)
 .-eztuk: “...bada ez careki bordaltacoz EZTUK c er etsiarengin, eta, ez lanik eguinere,...” (11)

dun

- .-badun: “Vada naiBADUN fan uzkiuara, orden gaztiarniara;” (31)
 .-yuanian: “eta yik izaguntanYUANIAN lassossko yagola ostikaldiba-tez ezcapayaiteke;” (31)

du

- .-du: “Sua DU arbole guciuetarik obenena; autsak ere DU in-dar andia;” (10)
 .-d u: “; baya uskara emonD u, orrek eratsukirik;” (8)
 .-badu: “Adios D. Resurreccion aiketa Garilekoaraino, Jangeikoak naiBADU.” (16)
 .-bad u: “BAD u borz ilabete fanzitzaikugula maistroa, arrenta an-diagoz,...” (3)
 .-barimadu: “; al BARIMADU  nolare eskribibeztad noizko akabaten-dion korko lana,...” (25)
 .-dion (z.g): “...eskribibeztad noizko akabatenDION korko lana, noiz usteDION ssin...” (25)
